

«Historiari, mitoari, buruan dudan filmari gorde diet nik fideltasuna»

Juan Luis Landa 'Orreagako Kronikak'(Ereinek argitaraturik)
Chroniques de Roncesvaux (Glénat)



Juan Luis bere Lezoko estudioan. Jentilik, musulmanik, frankorik edo baskorik marrazten. / ARIZMENDI



BEGOÑA DEL TESO
Asteartea, 24 urtarila 2023, 08:14



Otsailaren 11an banatuko dira Goyaren zinema sariak. Bost sailetan (gidoi egokituarenean barne) da finalista Paul Urkijoren azken pelikula, bai Donostiako Beldurrezko Astean bai Sitgesen Ikusleen garaikurra jaso dituen 'Irati'. Otsailaren 24an estreinatuko da Juan Luisek aspaldi zaharrean sortutako 'El ciclo de Irati' oinarri hartu zuen zeluloidezko epopeia. Juan Luisean azken-aurreko erronka 'Orreagako Kronikak' izan dira. Salgai eta dastagai daude.

– Bai Kiskurra tabernan bai Fortuna klubeko Arma Historikoen Ignota Aretoan izan ditugun juntazioetara, besapean bi liburu zenituela agertu zinen. Biak zeharo ezberdinak baina, aldi berean,elkarren osagarri.

– Bata Joaquín Arberloaren 'Los orígenes del Reino de Navarra' trilogiaren lehengo liburua da, Secundino Esnaola kalean zen Añamendi argitaletxeak 1969an kaleratutako altxorra, egun katalogo guztietatik kanpo dagoena, enkanteetan eta klasikoetara dedikatzen diren liburu-dendetan baino aurkituko ez duzuna.

«Naturak inspiratzen nau. Badaukagu etxe isolatu bat Nafarroan. Paseoan noala, aurkitzen ditut lurrean joandako garaietako armen zatiak eta sentitzen dut arbasoen hatsa»

– Arbeloa! Maria Zambranoren senarrak Lesakan sortutako poesia aldizkariaren kolaboratzailea izandakoa. Eta beste liburua, Acantiladok argitaratua?

– Martín de Riquerrek egindako ikerketa eta azterketa ikaragarri bat; 'Chanson de Roland: Cantar de Roland y el Roncesvalles navarro', 2003koa. Historiagile fina izan zen De Riquer: Quijotea arakatu zuen, 'Tirant Lo Blanc' sakon estudiatu, elezaharretan agertzen diren zaldun ibiltariak ekarri zituen gaurko argitara...

– Zergatik dituzu liburu bi horiek ezinbesteko?

– Historia izugarri atsegín dut. Baita elezaharrak ere. Jakin nahi izan dut beti nondik gatozen; garen herria zerk egin gintuen galdetu izan diot askotan nire buruari. Harritu nau beti Nafarroako Erresumak izan zuen garrantzia, izan zuen indarra, izan zuen presentzia eraikitzeaz zen Europa hartan. Gure izaerak, gure herri identitateak, baita gure gatazkak (ek) ere sustraiak non dituzten aurkitu nahi nuen. Eta bila izan naiz, bila ari naiz. Bai bilaketa horretan bai nire lanetarako mitoak eta Historia ezagutu behar ditut.

– Ezagutu bainoago, antza. Goiburuan duzunaren arabera, bai mitoeikiko, bai Historiarekiko leial eta fidel nahi duzu jokatu.

– Bai, dudarik gabe. Komikigintza nabil. Komikiak sortzen ditut. Istorio bat komikian kontatzerakoan historiaz gain, beste tresnak, beste inspirazio iturriak behar duzu erabili. Juntatu, zure eta irakurleena egin. Gesta-kantak kontakizun kasik mitologikoak dira. Historiak, berriz, ez ditu askotan ematen binetetan beharrezkoa den epikotasuna. Beraz, biak metatu eta bateratu behar dituzu. Biei fidel izaten eutsiz. Ahaztu gabe ere irakurlearekin duzun konpromisoa.

– Historia, mitoa, irakurlea, ulertuta dago baina... zergatik erabiltzen duzu lerroburuan 'filma' hitza? 'Irati'z ari zara?

– Ez. Egia esatearren, nik nire komikien orrialdeak pelikula baten eszenak bailiran bezala irudikatzen ditut. Marraztu, pintatu, binetetan banatu aurretik, nik zinema dut buruan: sekuentziak, eszenak, planoak, fotogramak. Kamera mugimenduak. Muntaketa.

– Arat! Hartuko al dugu ba, 'Munjoie!', zure Orreagako Kroniken bigarren liburua, eta, esaterako, 25 orrialdea, aztertuko?

– Ados. Hasteko, panoramika bat. Zabala. Goitik, kasik airetik hartuta. Iruñetik gertu. Sutan da Nafarroako hiriburua eta eguzkia sartzen ari da. Berez, gorri-hori ilunez pintatu dut. Badakizu non gauden? Irulegiko talaian...

– Gure hizkuntzaren adinaz genekiena azpikoz gora jarri duen esku hori aurkitu duten lekuan?!

– Bai. Bilatu zuten gunetik ez hain urrun. Gauza bat esango dizut, naturak, paisaiak, mendiek, dorreek, mendateek inspiratzen naute. Nire marrazkiek errealitea islatzen dute. Nafarroan dugu etxe bat eta handik abiatzen naiz ni inspirazio bila. Hartzen ditut argazkiak nire binetak ahalik eta egiazkoenak izan daitezten. Eta paseoan nabilela, sarri topatzen ditut antigoeleko arbasoek utzitako objektuen zatiak. Azkena edo, Erromatar inperio berantiarreko ezpata baten zorro zati bat. Arma kontuetan zaletu den semea hasi zen datatzen. Aranzadira eraman genuen eta han baieztatu zuten aroa. Beraiek gordetzen dute

– Ikaragarria. Segi, otoi!

– Irulegi gainetik hartutako panoramika horretatik zoom antzeko bat egiten dut eta aterpean dauden Ximeno jauna eta bere gerlariak ikusiko ditu irakurleak. Frankoek Zaragoza konkistatu ezinik, aberriako bueltan Iruñean egindako sarraskiaren lekukoak dira... Hurbilduko da nire irudizko kamera eta Ximenoren hurbil plano hartuko. Orrialdearen bukaeran, berriro zabalduko dut objektiboa eta hortxe izango dugu Ximenoren Eneko semearen armadaren irudia. Ikusten? Nire komikiak amesturiko pelikula baten storyboard(ak) dira sarri.

–Eta zer sentitu zenuen amesturiko pelikulek inspiraturiko komikiak gaur denon ahotan eta begietan den benetako pelikula epiko bihurturik ikusterakoan?

– Berezia eta estrainioa izan zen Victoria Eugenia antzokiko estreinaldia. Pozik nago. Gauza bat, nik uste, garena, nola edo hala, Orreagan hasi zen gauzatzen.

TENDENCIAS ▾

 Comentarios ▾

PATROCINADA

Fotos




 La resaca de los tambores: ríos de basura tras una fiesta sin fin



 Otra semana de frío



 La Hípica de Loiola cambia de ubicación



 20 looks para disfrutar del día de San Sebastián

Vídeos

Emotivo homenaje a Lukas Agirre en el Instituto Usandizaga, donde estudió Bachillerato Artístico



EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
Domicilio social en Milietegi Pasealekua 1. 20009 - Donostia-San Sebastián



En lo posible, para la resolución de litigios en línea en materia de consumo conforme Reglamento (UE) 524/2013, se buscará la posibilidad que la Comisión Europea facilite como plataforma de resolución de litigios en línea y que se encuentra disponible en el enlace <https://ec.europa.eu/consumers/odr>.

vocento

ABC

ABC Sevilla

Hoy

El Correo

La Rioja

El Norte de Castilla

Diario Vasco

El Comercio

Ideal

Sur

Las Provincias

El Diario Montañés

La Voz Digital

La Verdad

Leonoticias

Burgosconecta

Salamancaohoy

Todoalicante

Piso Compartido

Autocasión

Ofertplan

Pisos.com

Mujerhoy

XL Semanal

TopComparativas

WomenNow

Welfe

Turium